

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Antton Valverde Lamsfus

*Donostia,
Gipuzkoa
(1943)*

Aurkibidea



Biografia



Grosen jaioa, guraso biak Errenteriakoak zituen, amaren abizena jatorri alemaniarrekoa den arren. Aita, Antonio Valverde "Ayalde", margolari ezaguna zen, eta familiako Grafica Valverde inprimategian egiten zuen lana. Antton ere hantxe ibili zen, Deustun Enpresaritza ikasketak egin ostean. Musika ikasketak ere egin zituen, pianoa besteak beste, eta 27 urterekin kantuan hasi zen, euskal musikagintza berriaren mugimenduak eraginda. Bakarka hasi zen, 70eko hamarkadaren hasieran, baina gero Xabier Leterekin eta Julen Lekuonarekin elkartu zen. Oskarbi taldean ere egon zen. Batez ere olerkiak eta bertsoak bihurtu ditu abesti (Lizardirenak eta Lauaxetarenak, askoren artean) eta sortzen jarraitzen du. 23 urterekin ezkondu zen, eta hiru alaba izan zituzten. San Telmo museoan egin genion elkarrizketa.

Zintak

DON-202

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-04-23
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Aita, Antonio Valverde

- **Erref:** DON-202/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:02:54. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Aita margolari ezaguna izan zen, enpresaria eta idazlea ere bai. Gerrak Zuzenbide ikasketak moztu zizkion, eta ondoren bukatu zituen. Gerraostean euskaraz ikasi zuen eta Euskaltzaindiko kide izan zen.

2. Valverdetarren inprenta hasieretan

- **Erref:** DON-202/004
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:08:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak bi senide zituen. Aitaren aldetik, Valverdetarrak, Valladolideko Gaton de Campos herrixkatik etorri ziren. Birraitona Donostian hasi zen lanean eta gero Irunen inprenta txiki bat sortu zuen. Inprenta handitutakoan, Errenteriara pasatu ziren eta handik, Donostiara.

3. Inprimategiaren eraikina

- **Erref:** DON-202/006
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:08:41. **Bukatu:** 00:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

"Industria Grafica Valverde" izeneko inprimategia jartzeko, oso eraikin polita egin zutela kontatzen du.

4. Eskolatik karrera egin arterainokoa

- **Erref:** DON-202/007
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:09:22. **Bukatu:** 00:11:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ategorrieta, bera jaio zen kalea, General Mola zen orduan. Telefonoak orduan lau zenbaki zituen. Hasieran "Las Oblatas" komentuko mojekin ibili zen;

euskaraz bakarrik jakin arren, erabat ahaztu zuen eta gazteleraz bakarrik egiten zuen. Ondoren, "Sagrado Corazón"eko mojekin ikasi zuen, eta jaunartzearen ostean, Marianistetan hasi zen. Karrera Donostian egin zuen "Escuela Superior de Técnicos de Empresa" ikastegian. Lanean hasi eta lau urtera edo hasi zen kantatzen.

5. Ama euskalduna; aita, gero ikasia eta euskaltzalea

- **Erref:** DON-202/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:13:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Ama oso euskalduna zen eta harengandik jaso zuen euskara. Aitak ez zekien, baina ikasi zuenean, etxean denak euskaraz egitera behartu zituen. Elbire Zipitriarekin ikasi zuen aitak euskaraz. Oso euskaltzalea zela dio.

6. Gurasoak magnetofoiarekin testua eta musika grabatzen

- **Erref:** DON-202/009
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:13:27. **Bukatu:** 00:15:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Aitak magnetofoiak zeukanez, amari eskatzen zion zerbait irakurtzeko, musikak lagundurik eta grabatu egiten zuen. Musika klasikoa izaten zen eta testua Lizardiren poesiak osatzen zuen gehienetan.

7. Artista ezagunak etxean eta lantegian

- **Erref:** DON-202/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:15:16. **Bukatu:** 00:16:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Mutikoa zela, oso euskara gutxi entzuten zen Donostian. Aitak margolari eta idazle askorekin izan zuen harremana eta etxean eta lantegian ezagutu izan ditu: Ascensio Martiarena, Aita Donostia, Jesus Guridi, Nestor Basterretxea, Jorge Oteiza, Chillida...

8. Ascensio Martiarena margolariarekin

- **Erref:** DON-202/011

- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Ascensio Martiarenak etxetxo bat zeukan, "Txabolgorri" izenekoa, eta han aritzen zen margotzen aita berarekin. Aitak estilo asko landu zituen eta berritzailea izan zen. Sariketa batzuk irabazi zituen.

9. Lagun eta anai-arreba margolariak

- **Erref:** DON-202/012
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:20:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Agustin Ansa eta Ramon Ayllon medikuak zituen aitak oso lagun, margolariak biak ere. Anttonen anai Pedro eta arreba Rosa ere margolariak dira.

10. Izeba Pispo pianojolea

- **Erref:** DON-202/013
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:20:49. **Bukatu:** 00:22:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Aitaren arreba bat, izeba "Pispo", musikaria zen. Jesus Guridiren katedran aritu zen lanean. Anekdotak bat kontatzen du.

11. Pepita Iribas eta Francisco Escudero irakasle

- **Erref:** DON-202/014
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:22:33. **Bukatu:** 00:24:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Pepita Iribas irakaslearekin ikasi zuen pianoa jotzen. Francisco Escuderoarekin Armonia ikasi zuen, bost urtez. Ordurako kantatzen hasia zen.

12. Grabatutako lehenengo bertsoak

- **Erref:** DON-202/015
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:24:27. **Bukatu:** 00:25:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Hitzaldiak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Gogoan dauka aitak 1969 inguruan Erreterian Xenpelarri buruz hitzaldia eman zuela, eta haren bertso batzuk kantatzeko eskatu ziola.

13. Lehenengo diskoaren grabaketa

- **Erref:** DON-202/016
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:25:33. **Bukatu:** 00:28:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Baga-Biga-Higa" ikuskizunak eta Beran ikusitako musika jaialdi batek hunkituta, zerbait egiteko grina sortu zitzaion. Iñaki Beobidek gonbidatuta, grabaketa bat egin zuen Kataluniako teknikari batekin, eta lehenengo diskoa argitaratu zuen.

14. Lehenengo diskoa

- **Erref:** DON-202/017
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:28:24. **Bukatu:** 00:29:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

1970ean kaleratu zuen lehen diskoa, lau kantek osatzen zutena. Kanta haietako bat "Hutsa" izenekoa zen. Diskoa kaleratu zuenean, deika hasi zitzaizkion.

15. Xabier Leterekin egindako lehenengo emanaldia

- **Erref:** DON-202/018
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:29:32. **Bukatu:** 00:33:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Uda Oiartzunen pasatzen zuenez, Xabier Lete betidanik ezagutzen zuen. Bergarako Osintxu auzoan jaialdi bat egin zuten eta Xabierrek Xenpelarren bertso batzuk abestu zituen eta Anttonek Txirritarenak. Julen Lekuonarekin batera osatu zuten emanaldia. Juan Mari Lekuonaren laguntza izan zuten bertsoak aukeratzekoan. Oskarbi taldekoekin pare bat urtez aritu zen.

16. Gitarrarekin lehen ibilerak

- **Erref:** DON-202/019
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:33:13. **Bukatu:** 00:35:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Lasarteko mendizale elkartean egin zuen lehen kontzertua gitarrarekin. Errezilen eman zuen kontzertua nolakoa zen kontatzen du. Gero ikastoletatik deitzen hasi ziren eta arrakasta handia izaten zuen.

17. Kontzertuetan pianoa jotzeko, nahikoa lan

- **Erref:** DON-202/020
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:35:49. **Bukatu:** 00:37:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Pianoarekin hasi zirenean, Xabier eta biak arduratzen ziren pianoa alokatu, kargatu, eraman eta ekartzeaz. Gitarra eta pianoa, biak jotzen zituen emanaldietan.

18. Oskarbi taldearekin

- **Erref:** DON-202/021
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:37:18. **Bukatu:** 00:38:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Oskarbi taldearekin pare bat urtez aritu zen, eta udaran asko jotzen zuten. "Eskutari" izeneko diskoan parte hartu zuen.

19. Nemesio Etxanizen grabaketak aitaren magnetofon

- **Erref:** DON-202/022
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:38:23. **Bukatu:** 00:39:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bere aitaren magnetofoiarekin grabatzera joaten ziren Nemesio Etxaniz eta beste batzuk. Grabaketa profesionalak egiteko ez zegoen inor orduan.

20. Herri gogoa disketxea

- **Erref:** DON-202/023
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:39:22. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Herri gogoa" disketxeak Kataluniako "Edixa"ren laguntza jasotzen zuen. Grabaketak Grosen egiten zituzten, Paco Miangolarrak erosi eta egokitutako etxebizitza batean. Iñaki Beobide aritzen zen grabaketak egiten; Jarrai antzerki taldeko zuzendaria zen, eta gero Euskal Telebistara pasatu zen.

21. Herri gogoarekin grabatutakoak

- **Erref:** DON-202/024
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:42:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Herri gogoa" diskoetxearekin "Bertso Zaharrak" diskoa (Xabier Lete eta Julen Lekuonarekin) eta "Txirritaren bertsoak" (Xabier Leterekin) kaleratu zituen. Bakarkako lehenbiziko diskoa ere "Herri gogoa"rekin grabatu zuen.

22. "Maitasunez hil" kanta

- **Erref:** DON-202/025
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:42:04. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Maitasunez hil" kanta egiteko, normalean egiten duenaren kontrakoa egin zuen: lehenengo musika sortu zuen eta gero Xabier Leteri gaia jarri zion, hitzak egin zitzaizkion.

23. Poemak eta bertsoak kantetarako

- **Erref:** DON-202/026
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:45:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Poeten liburuak baliatu izan ditu kantentzat hitzak aukeratzeko. Bertsolari askoren bertsoak musikatu izan ditu. Lizardiren poemekin egindako lanak aipatzen ditu.

24. Lauaxetarekikoak

- **Erref:** DON-202/027
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:45:47. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Lauaxeta poetaren berri Joxean Artzeren bitartez jakin zuen. Lauaxetari buruzko diskoa egin zuen 1977an.

25. Aitaren ilustrazioak Orixe eta Lizardiren libururuetan

- **Erref:** DON-202/028
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:48:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Orixeren "Euskaldunak" eta Lizardiren "Bihotz begietan" liburuen bigarren edizioetako ilustrazioak bere aitak egin zituen.

26. Musikariei zentsura

- **Erref:** DON-202/030
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:50:12. **Bukatu:** 00:52:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Kantari bakoitzak "Ministerio de Información y Turismo" izenekora bidali behar izaten zuen kanten zerrenda eta edukia. Batzuetan kontrolak izaten zituzten. Bizkaian Gobernadore Zibilaren gustukoak ez ziren bertsoak abestearren, hiru urtez Bizkaian kantatu gabe egon zen.

27. Kontzertuak emateari utzi, aldarrikapenengatik

- **Erref:** DON-202/031
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:52:51. **Bukatu:** 00:54:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Kontzertuak aldarrikapenatarako baliatzen hasi ziren, gatazkaren urterik gogorrenetan, eta Anttonek eta hainbatek (Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Pantxoa eta Peio...) kontzertuak emateari utzi zioten.

28. Gorteetako parodia, Leterekin

- **Erref:** DON-202/032
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:54:29. **Bukatu:** 00:56:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Gorteetako parodia" egiten zuten, Xabier Letek eta biek. Antzerki musikatua zen.

29. Xabier Lete

- **Erref:** DON-202/033
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:56:26. **Bukatu:** 00:57:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Xabier Lete nolakoa zen kontatzen du: lanerako erraza, interesgarria, hizketan trebea, kontalari oso ona, imitatzailerik ona... dohain askokoa.

30. Lurdes Iriondo

- **Erref:** DON-202/034
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:57:51. **Bukatu:** 00:59:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Lurdes Iriondok bihotzeko gaixotasuna zuen eta ebakuntzak egin behar izan

zizkioten. Horrek bere kantagintza baldintzatu zuen. Emakume ederra, kantaera politekoa eta protesta kantak egiten zituen zen.

31. Lekuonatarrak

- **Erref:** DON-202/035
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:59:33. **Bukatu:** 01:01:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Julen Lekuonarekin lanean aritu zenean, jadanik ez zen apaiza. Oiartzundik ezagutzen zuen. Lekuonatarrak jende zoragarria izan direla dio.

32. "Shakespeareren sonetoak" kantaz

- **Erref:** DON-202/036
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:01:56. **Bukatu:** 01:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"97" izeneko diskoan kaleratutako "Shakespeareren sonetoak" kantari buruzkoak aipatzen ditu.

33. "Hamabi amodio kanta" diskaz

- **Erref:** DON-202/037
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:03:42. **Bukatu:** 01:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Hamabi amodio kanta" diskoko kanten jatorria kontatzen du.

34. "Gaua. Ausentziaren itzala" lanaz

- **Erref:** DON-202/038
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:05:39. **Bukatu:** 01:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

"Gaua. Ausentziaren itzala" kaleratzeko zalantzan egon zen. Harkaitz Cano eta Harkaitz Mendozaren "Malgu da gaua" liburuko hainbat poema diskora gehitu zituen. Hainbat aurkezpen ditu.

35. Andu Lertxundirekin egindakoak

- **Erref:** DON-202/039
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:08:46. **Bukatu:** 01:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Xabier Lete hil zenean, umezurtz geratu zela dio. Andu Lertxundiri proposatu zion emanaldi bat elkarrekin egiteko. Gero "3 Eleak" DVDa kaleratu zuten Pamielarekin. "Hitzak hots" emanaldia ere elkarrekin egin zuten, beste bost poetarekin batera.

36. Beste musikari batzuekin harremana

- **Erref:** DON-202/040
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:11:58. **Bukatu:** 01:14:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Laboarekin sarri egoten zen eta oso harreman ona izan zuen. Harreman ona zeukan orduko kantari askorekin: Pantxoa eta Peio, Antton Aranburu, Txomin Artola, Ibai Rekondo, Nacho de Felipe...

37. Nemesio Etxaniz

- **Erref:** DON-202/042
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:16:07. **Bukatu:** 01:18:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Donostiako euskalduntze prozesua aipatzen du pixka bat. Nemesio Etxanizek Gobernadore Zibilari protesta gutunak bidaltzen zizkion. Nemesiok pentsatzen zuen kanpoko musika euskarara ekarri behar zela. Hainbat kanta aipatzen ditu.

38. Inprimategi garrantzitsua

- **Erref:** DON-202/043
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:18:33. **Bukatu:** 01:20:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Inprimategia oso garrantzitsua izan zen familian: inprenta ona zelako, aita teknikari ona zelako, artista asko ibiltzen zelako lanean han...

39. Inprimategiko lanak

- **Erref:** DON-202/044
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:20:04. **Bukatu:** 01:21:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Kartelak, egutegiak, esku-orriak, etiketak... egiten zituzten inprimategian. Liburuak oso gutxi ateratzen zituzten. Litografiarekin eta tipografiarekin lan egiten zuten. Sakongrabatu teknikarekin gauza harrigarriak egin zituzten.

40. Inprimategien gainbehera

- **Erref:** DON-202/045
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:21:58. **Bukatu:** 01:23:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Euskal Herriko inprimategi garrantzitsuenek ez zuten asmatu egoera txarrari buelta ematen eta itxi egin zituzten. Adibideak ematen ditu.

41. Jaialdiak ez gainjartzeko, bilera

- **Erref:** DON-202/047
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:25:33. **Bukatu:** 01:27:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

70eko hamarkadan kantarien mugimendu izugarria zegoela dio. Hainbeste jaialdi antolatuta, oso eremu txikian jaialdiak batera antolatzen ziren. Eibarren bilkura egin zuten eta 52 kantari batu ziren, jaialdien kontua koordinatzeko, baina ez zuten ezer adostu.

42. Euskara babesleku

- **Erref:** DON-202/048
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:27:01. **Bukatu:** 01:28:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Hamaika-hamabi urterekin euskara berreskuratu zuen, aitak behartuta. Munduan egoteko babes bat izan dela dio. Eskolan den-dena erdaraz zen eta gelakideek ere erdaraz egiten zuten denek.

43. Lehen hitza euskaraz

- **Erref:** DON-202/049
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:28:48. **Bukatu:** 01:30:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Telefonoz lehen hitza euskaraz egitearen garrantzia aipatzen du. Txillardegiren legea azaltzen du: taldean erdaldun bakarren bat egonik ere, euskaldun denek erdaraz egitearena.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com